

## Kristo gaztea, Nazaret'en

«Umea, Jesus, azi ta gogortu egiten zan, jakituriz beterika».

(Luk., II, 40)

Garai artan, Nazaret'ek, mila bat arima eukazan. Erri txikia, beraz, muiño baten gaiñean jarria, inguruko erriskak baiño zerbait, atz batzuk, gorago bakartu ta nabiari zana. Ego-aldetik, itxasoa dauka ur-samar. Urrunago, Tabor, Ermon eta Gelboe mendiak; ikuspegi zabal gozoa. Len eta orain, solo-lanetik bizi dira bertakoak; inguruetaiko muna landa-erripetan, erromaraz beste aldetik, ardi-taldeak eta auntz-aldrak agiri dira,ango larra ta txaparra jaten.

Angoxe lurra, angoxe zerua, ango aizea ta ura izan ziran Jesus'ek arnastu ta artuak. Aretxek azi ta moldatu eben Gizardian izan dan gizonik audi ta zoragarriena. Solo-lanetik, artzaintzatik eta arotz-beurretik bizi ziran jente xume artean jaio ta azi zan Jesus. Bizi-giro onek busti, ase ta indartu eben Kristo, ume ta gazte zalarik.

Aren legezko aita etzan nekazari izan, arotz-langille baiño. Aren ama, Andra Maria, etxeiko zeregiñetan jarduna dogu. Kristo'ren lenengo itzak, abestiak eta eskariak Nazaret'ek entzun zituan; Nazaret'ek

artu zituan Kristo'ren lanak eta atsekabeak eta atsedenak. Kristo etzan nekazari izan, arotz-langille baiño; orrela azke ta libreago ego-go zan agiriko bizitza asi orduan. Eder yakon, orraitño, artzaintza, eder yakon bere erritarren solo-lana. Maitezko legea zabaltzerakoan, sarri artuko ditu, bai baterik bai besterik, ipuin-gai egoki, argi ta sarkorrak.

Kristo'k izadiko liburuari ikasi eben batez be; begi aurrean eukan lur-zatiak emotsan ortarako, ugari be ugari, bear eben guztia. Jakiturri eder yakon Nazaret. Ba-ekian noiz etorren negua ta naiz Iuda; noiz etozan euriak eta legoriteak; ba-ekian lurpekoen barri, le tximistena; sugeena ta txorienea. Ezagun yakon landaren ugaritzera iragarr, balta pizti ta abereena.

Egunero ekusan ama, latua: ogia egiten eben, elybitu, argia ixio, janaria gaziitz egin. Ba-ekian ama seinhiriaren poza; zelan janitzialen bere lengusu Juan; aleen itxasoko bizikera, an dagon Tiberiades zingirako ranzale eguzkiz baltzituena, bait,

Kristo'k, umetan, Nazaret'eko sinagogan ikasi zituan lenengo giz-

jikituriaren abede ta asi-masiak. Gaztetan be, amabost-ogetamar urteko zala, bertako sinagogara joaten zan zapatuetan; antxe ikasi baitzen ume zala irakurten eta idazten, beste edozein mutikok lez; eta araxe joian, pozik, otoitz egin eta salmuak kantatzera. Jai aundieta-rako, barriz, Jerusalen'go eleizara joan oi zan. Joskera bako alkondara ase ta nasai a eroian soiñean, gerrikoz lotuta. Ulea, luze, ta Bi-zarra: gaurko gazte askoren antzera.

Giro onek moldatu eben Kris-to'ren gogoa, gizon zanez beintzat. Jainko zanez, jakitura bera zan, eta da, ta ez dauka zetan geiago ugariturik, edo zabal-azirik.

Nazaret'eko giroak egin eben langille, azkar, bizi ta argi. Bere izkuntza jatorra arameo zan; baiña beste izkuntza batzuk be ikasi zituan antza; Pontzio Pilato'ri beintzat, zuzen-zuzen, griegoz erantzun eutsan.

S. B.



## Liturjia barria ta euzkera batua

Meza Santua kultura-iturri, politika-iturri, oitura-iturri ta beste iturri batzuen erdian dagoan erlejiño-iturria da. Eta guretzat, fededunontzat, salbaziño-iturria da; eta fede ta maitasunaz alkartuta, pozik joaten gara salbaziño-iturri orre-tara, betiko bizitzarako ura edate-ra, osatu, indartu ta barritzatzen.

Oraintsuarre, gizaldiz gizaldi, latinezko pitxarretan edaten genduan ur osasungarri ori. Baiña, ibilli ta ibilli, «beti latiñez, naiz ta jakin ez», zulotu egin jakuzan pitxarrak. Eta, jakiña, ura edan gura, ta edan

eziñik ibilten izan gara gizendok, Ori dala-ta, pitxar barriak antzera, erri bakarrean hartzera, ezkutatzaren bustinaz.

Gurean euskal herria egin doguz euskal hizkuntza, euskera betu bizi. Izanbere, unteak joan zituzten egora, euskal herria egin doguz euskal kultura, politika-iturri, oitura-iturri, erlejiño-iturri ta gaiñerako iturri-tatik ura edateko, eta besteen pitxarreko urari ez deutsagu ia guz